

**Zerbitzuak alokatzeko kontratu eredia
(eskola orduz kanpoko ekintzak kontratatzeko)**

.....(a)n 200...(e)ko(a)ren(e)(a)n

BILDUTA

ALDE BATETIK: jauna/andrea, NAN.....
zenbakiduna, ikastetxe publikoko Ikasleen Guraso Elkartearen Lehendakari
den aldetik (helbide soziala: kalea, zenbakia, posta
kodea, , Gipuzkoa. Legez eraturako elkartea, Eusko Jaurlaritzaren Elkarte
Erregistroan zenbakiarekin erregistratua)

BESTETIK: jauna/andrea, NAN zenbakiduna
..... enpresaren ordezkari den aldetik (helbide soziala:.....
kalea, zenbakia, posta kodea,, Gipuzkoa). Gipuzkoako
Merkataritza Elkarte Erregistroan zenbakiarekin erregistratua (**sozietatea bada
soilik bete beharreko datua**)).

PARTE-HARTZAILE DIRELA

..... jauna/andrea, Guraso Elkartearen (aurrerantzean, IGE)
lehendakari gisa, IGE horren Idazkariak emandako agiriak egiaztatzen duenez (kontratu honi
erantsita doa egiaztagiri hori).

..... jauna/andrea, enpresaren
administratzaile edo kudeatzaile gisa, agiri honi erantsitako eskritura edo notario ahalordearen
kopiak egiaztatzen duenez (**agiri horren beharrik ez da izango profesional autonomoen kasuan;
halakoetan, Gizarte Segurantzako Langile Autonomoen Erregimenean alta emanda dagoela
egiaztatzen duen agiria erantsi beharko da**).

Bi aldeek elkarri aitortzen diote zerbitzuak alokatzeko honako kontratu hau emateko eskumena,
eta honako xedapen hauek hitzartu dituzte:

XEDAPENAK

LEHENA: ikasturtean
deritzon eskola orduz kanpoko ekintza antolatzeko asmoa du IGEak. Ekintza hori
..... ikastetxe publikoaren instalazioetan egingo da. Jardueraren
hasiera data izangoda, eta amaiera data, honako ordutegi hau
izango du:

BIGARRENA: enpresak (**edo, hala dagokionean,
jaunak/andreak, profesional autonomo gisa**) hartuko du ekintza hori gauzatzeko ardura, lehen
xedapenean zehaztutako egunetan eta ordutegian. IGEak eskumena du ordutegiak eta egunak
bere kabuz aldatzeko, betiere bi aldeek hitzartutako guztirako ordu kopurua aldatu gabe;
nolanahi ere, egunak edo ordutegiak aldatu nahi izanez gero, 15 egun lehenago jakinarazi
beharko dio IGEak enpresari.

HIRUGARRENA: Guztira, ordu kopuru hau hartuko du eskola orduz kanpoko ekintza
horrek:

LAUGARRENA: Ekintza gauzatzeko behar diren materialak IGEak/ikasleek/enpresak jarriko ditu(zte) (dagokionaren arabera).

BOSGARRENA: Enpresak (edo, hala dagokionean, profesionalak) euro jasoko ditu bere lanarengatik. Zenbateko hori jarraian adierazten den eran ordainduko da: (adierazi hitzartutako ordainketa era hemen).

SEIGARRENA: Enpresak (edo, hala dagokionean, profesionalak) aitortzen du alta emanda dagoela Jarduera Ekonomikoen Zergan edo lizentzia fiskala duela, ekintza gauzatu duten langileak alta emanda dituela Gizarte Segurantzako dagokien erregimenean, eta bete dituela zerga betebeharrak guztiak.

ZAZPIGARRENA: Kontratu honek izaera zibila izango du, soilik, espresuki gelditzen da lan arloko jurisdikziotik kanpo. Donostiako auzitegi eta epaitegien jurisdikziopean dago.

ZORTZIGARRENA: Kontratu hau aldi baterako da, eta lehenengo xedapenean adierazitako iraupena dauka;an iraungiko da.

Eta bi aldeak ados daudela adierazteko, honako kontratu hau sinatu dute, (kontratua sinatu den herria)n.

(Jarduera gauzatzeko beharrezko irizten diezuen klausula guztiak gehitu daitezke, aurreko xedapenei kontra egin gabe, betiere)